

Eneko Garmendia | Mari Ángeles Garrancho | Nagore Sanchez

GAU BELTZA

**ORJAR
JAUREGIKO
MISTERIOA**



igelioigela




GAUB

A dark, atmospheric photograph of a building at night. The building has several windows, some of which are illuminated from within, casting a warm glow. The overall scene is very dark, with the building's facade appearing in deep shadows. Overlaid on the lower half of the image is the word "ELTZA" in large, white, distressed, and slightly irregular capital letters. The letters have a rough, hand-painted appearance with some black and grey splatters or shadows around them, giving it a gritty, urban feel. The background behind the text is a dark, textured surface, possibly a wall or a night sky, with some faint, blurry light streaks or reflections visible.

ELTZA

ORJAR JAUREGIKO MISTERIOA



Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2024ko urrian

Azalaren eta barruko irudiak:
Amaia Torres Piñeiro

Maketazioa:
Erein

© Eneko Garmendia, Maria Ángeles Garrancho, Nagore Sanchez

© EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-997-0

L.G.: D 862-2024

EREIN Argitaletxea
Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300

e-posta: erein@erein.eus
www.erein.eus



Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.
Araba kalea, 45.

20800 Zarautz

T 943 835 008

e-posta: itxaropena@itxaropena.net
www.itxaropena.net

Eneko Garmendia | Mari Ángeles Garrancho | Nagore Sanchez

GAU BELTZA

ORJAR
JAUREGIKO
MISTERIOA



Ilustrazioak

Amaia Torres Piñeiro



igelioigela 46

1

GAU BELTZA: «ZIRIA ALA SARIA»

Maren, Aner, Jare eta Lier gazteak Legorretan bizi ziren, Goierri eskualdeko herri txiki eta lasai batean. Udazkena zen, zuhaitzek kolore goxo eta biziz margotzen zituzten herriko bazterrak. Lehen aldia zen herrian Gau Beltza ospatzen zela eta lau lagunak hila-beteak zeramatzaten antolatzen eta mozorroak prestatzen. Gogotsu zeuden gau misterioitsua has zedin herrian. Giro alaia eta atsegina zen nagusi.

Lau lagunek eskolan ezagutu zuten elkar, bi urterekin eta, orain, hamabirekin, banaezinak bilakatu ziren.



Marenek elur koloreko azala zuen eta gerriraino iristen zitzaion ile gaztaina kolorekoa. Irribarre distiratsua zuen; bazirudien beti aurkitzen zuela alaitasuna bizitzako gauza txikietan, baina pixka bat izutia ere bazen.



Anerrek ile kizkur iluna zuen, hanka oso luzeak, eta, hauskorra ematen zuen arren, oso abila zen. Txantxazale amorratua zen, beti besteei barrea eragiteko prest.

Jare adimentsua eta behatzailea zen, arrazoiaren ahotsa egoe-
ra zailetan. Oso gihartsua eta
ile hori eta begi bizikoa.



Lierrek ile gorria eta begi-
rada zorrotza zuen. Aben-
turak eta misterioak maite
zituen. Ipurtarina, ez zen
sekula geldirik egoten.

Urriaren 31ko gaua iritsi zen eta herriak misterioitsuago zirudien: balkoi guztiak kalabaza hustuekin egindako lanparaz hornituta zeuden, herriko txoko guztiak armiarma-sareez apainduta eta kaleak trazu zaharrez eta linternek hartuta. Herriko edozein txokotatik bolo-bolo entzuten hasi zen:

«Sosa ala pota».

«Ziria ala saria».

Lau lagunak, giroan murgilduz, linterna eta saskia hartuta, eskean hasi ziren etxez etxe. Ordubete igaro ondoren, Jarek esan zuen:

—Zergatik ez gara baserrietara joaten? Hara ez da inor igotzen! Gure bisita eskertuko dute.

—Ados! Gainera hango jendea eskuzabalagoa izaten da! —erantzun zuen Lierrek.

Maren eta Aner ere ados zeuden beren lagunekin. Beraz, herritik apur bat urruntzea erabaki zuten.

Mendian gora eta behera zebiltzala, inork espero ez zuen eguraldi aldaketa gertatu zen. Zeruan lainoak elkar besarkatuz beltz-beltzak jarri ziren eta, konturatzera, ekaitza gainean zuten.

Mendian zeuden aterkirik gabe eta tximistaren argitasunak beldur pixka bat sorrarazi zien. Eguraldi

txarraz babesteko asmoz aldapan behera korrika hasi ziren lau lagunak, eta bat-batean bidegurutze batekin egin zuten topo. Duda-mudan segundo batzuk eman ondoren, ezkerreko aldapa igotzea erabaki zuten, gertu babeslekuren bat topatzeko asmoz.

Aldaparen bukaeran ermita txiki batekin egin zuten topo. Nahiko zaharkitua zegoen arren, ateak ondo itxita zituela ohartu ziren segituan, beraz, ermitatik behera zihoan bideari jarraitu zioten. Metro gutxi batzuetara eskailera batzuetatik behera jaisteko aukera ikusi zuten, baina orduan Jarek oihu egin zuen:

—Itxaron, ez jaitsi eskailera horiek, hor aurrean, etxe handi bat daukagu, hor babestu gaitezke.

Eskailerak eta ekaitza atzean utziz, lau neska-mutilak hara zuzendu ziren babes bila.

—Hau sasoia duguna, izugarrizko aldapa igo dugu hauspoa gehiegi berotu gabe —esan zuen Marenek.

—Begira non gauden! Hau jauregi puska! —esan zuen Anerrek.

—Ez duzue ezagutzen Oriar jauregia? —galdetu zuen Lierrek tonu misteriotsu batean.

Beste hiru lagunak ezetz egin zuten buruarekin.

Lier hasi zen kontatzen:



—Oriar jauregia, herriko familia aberatsenaren etxea da. Antzinako jauntxoen arbasoak direla esaten da. Familia pixkanaka sakabanatzen joan zen, eta jauregia oporretako etxe moduan erabiltzen zuten. Ez da inoiz garbi jakin nor etortzen zen etxe honetara. Izan ere, ez omen ziren herrira jaisten eta ezta jauregiko eremuetatik ateratzen ere. Batek baino gehiagok esaten zuten, haurren barreak entzuten zirela bertako lorategian; beste batzuek, berriz, leihoan amona bat ikusi izan omen zuten puntua egiten...

»Egun batean, eskutitz bat iritsi zen herriko etxe guztietara. Oriar jauregian langile bat behar zutela jartzen zuen, baratzeaz eta lorategiaz arduratuko zen aditu bat. Lan horiek egiteagatik, izugarrizko dirutza eskaintzen omen zuten garai haietarako. Beraz, herritar asko interesatu zen eta, idatziak zioen moduan urriaren 31n, Oriar jauregiaren sarreran izugarrizko jende-ilara osatu omen zen. Bertaratutako guztiek argi zuten lanposturako hautagai bikainak zirela eta nor bere gaitasunak goraipatzen hasi zen harrotasunez: batek herriko arrosarik ederrenak zituela etxean, besteak izugarrizko abilezia belarra mozten, hurrengoak herriko baratzerik ederrena mantentzeko sekretua, beste batek fruta arbolak inausten zekien...

»Ilaran lehena, mutiko bat zen, kapela jantzita zeramana larru marroizko puntaduna, eta eskuan zilar koloreko igitai bat. Mutikoari atzerago zegoen norbaiten oihiu egin zion:

»—Eta hik zer egiten duk hemen? Ez al haiz gazteegia lanpostuak eskaintzen duen jakituria izateko?

»—Hori-hori. Zer dakik ba hik hona etortzera ausartzeko? —beste batek.

»Mutikoak lurrera begira eta ahots apalarekin erantzun zuen:

»—Nik ilargia eta sendabelarrak ezagutzen ditut.

»Ilara guztian errepikatu zen haren esaldia barre al-gara eta iseka artean:

»—Hara!, mutiko, intsusa izango haiz orduan?

»—Ja, ja, ja, ja! Intsusa! Ja, ja, ja!

»—Kontu zahar horiek alferrikakoak dituk, motel! Belar horiek galtzear zeudek! Horiek ez ditek ezertarako balio!

»—Joan hadi jolasera eta utzi hire lekua beste norbaiti!

»—Kanpora mutiko intsusa! Kanpora!

»Baina jendetza mutikoari bultzaka hasi zenean, Oriarko ateak ireki egin ziren. Mutikoa korrika sartu zen jauregira eta bere atzetik itxi ziren ateak. Ilaran zeuden

guztiak zapuztuta marmarrean hasi ziren, mutikoak denbora galaraziko zielakoan eta berriro ateak noiz irekiko zain geratu ziren.

»Baina igaro zen ordu bat, bi ordu, hiru eta lau ordu... Iritsi zen gaua ere eta Oriar jauregiko ateak ez omen ziren inoiz gehiago ireki.

»Batzuek diote mutiko hark sekulako jakinduria zuela eta Oriarren geratu zela bizitzen. Beste batzuek diote, aldiz, Oriarko familiak mutiko xelebrearen hautagaitza isekaz hartu zuela eta, atzeko atetik bota ondoren, bertan behera utzi zutela langilearen bilaketa...

»Kontuak kontu, ez da gehiago ezer jakin larru marroizko kapela puntaduna eta zilar koloreko igitaia zeramatzan mutiko haren gainean. Baina orduz gero, Legorretako xendetan eta bazterretan ez da inoiz falta izan pasmo-belarrik, berbena, kamamila, erromeroa eta beste hainbat sendabelar preziaturik.

Lagunak zur eta lur gelditu ziren Lierrek kontatu zuen istorioarekin. Beldurrez bazeuden ere, euria, ekaitza eta hotzaren aurrean, bi aldiz pentsatu gabe, barrura sartzea erabaki zuten.

—Goazen lagunak, mela-mela eginda gaude, hemen babestuko gara euria eta ekaitza gelditu arte —esan zuen Marenek.

Lau lagunak Oriar jauregian sartu ziren. Zerama-tzaten esku-argiei esker, jauregi erraldoi haren barre-nak agerian geratu ziren, eta hormetatik eta lurretik zetorren usain hezea barruraino sartzen zitzaien.

Jauregia izugarria zen. Sarrera zaharra eta iluna zuen. Zurezko bi ate handi ageri ziren eskailera kirrin-kari amaigabe batzuen bukaeran. Ateek denborak her-doildutako helduleku erraldoiak zituzten. Eskaileren azpian ezkutatuta, beste bi ate txikiago zeuden.

Lurra alfonbra zahar saretu batez estalita zegoen. Garai batean kolore gorritz eta mosaiko politak izan zituela zirudien arren, egun, hautsa eta zuloak besterik ez zituen, eta hostoz beteta zegoen.

Iluntasunagatik ere, garai batean ehunka kande-lez apainduta egongo zen armiarma lanpara benetan ikusgarri bat ikusten zen, sabai amaigabe hartatik zintzilik.

Leiho txiki hautsiak zeuden nonahi, jauregiaren barrenak argi lausoz argitzen zituztenak. Noizean behin, haizeak leihoen kontra jotzen zuen, eta zurrurruiek mamuen xuxurlak ziruditen.

Hormetan, koadro zahar hondatu batzuk zeuden zintzilikaturik; aurpegi ilunak eta paisaia beldurga-riak ziren. Gelaren erdian, garai bateko egurrezko

mahai handi bat zegoen maindire zuriz eta armiarmasareiz estalita.

—Eskerrak Oriar jauregian babestu garela. Begira, begira! Oraintxe bertan tximista bat zuhaitz baten gainera erori da. Hurbildu-hurbildu nigana! —esan zien Jarek.

Lagunak leihora gerturatzen hasi zirenean, bat-batean, DANBA entzun eta atea itxi egin zen.

Korrika gerturatu ziren atera, baina ezin izan zuten ireki.

—Eta orain zer egingo dugu? Nik beldurra dut! Etxera joan nahi dut! —zioen Marenek.

—Begira, sarrailan giltzarrapo bat dago! Lau zifratako kode bat sartu beharko dugu atea ireki nahi badugu! —esan zuen Lierrek.

Elkarri begiratzuz noraezean mugitzen hasi ziren erantzun baten bila.

AURKIBIDEA

GAU BELTZA: «ZIRIA ALA SARIA»	9
GUTUNAREN SEKRETUA	21
ITZALEN GELA	27
LIBURUTEGIA	39
IZARRAK	47
KALABAZEN GELA	53
JARE ETA MARENEN BELDURRAK	61
LIER ETA ANERREN BELDURRAK	71
LEGORRETAKO GAU BELTZA	83